



Bizkaiko Mendizale Federazioa
Federación Vizcaína de Montaña

BIZKAIKO MENDI FEDERAZIOKO ZUZENDARI BATZORDEAREN AKTA

2025eko apirilak 02 19:00etan

Partaideak: Pedro Aizarna, Alfonso Requero, Sole Sntisteban, Garbiñe Okerantza, Aitor Arnedo, Gabi Regil, Aitziber Uriarte.

2025eko martxoko akta onartu da bilerako partaidengandik apirileko batzarra hasi aurretik.

Euskal Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen lehen bileran Pedro Aizarna Bizkaiko Federazioaren presidente bezala parte hartzen du, eta nabarmentzekoa da hiru lurraldeetako presidenteen arteko sintonia ona. Besteak beste, aipatu behar da Euskal Federazioaren batzarra Derion izango dela, maiatzaren 31n. Aplikazio bat sortuko da klubei federazio-lizentzien kudeaketa errazteko. Klubei laguntza eskatuko zaie Mendizaletasunaren Galarako hautagaiak proposatzeko, ondoren Euskal Federazioak hautagaien artean aukeratu ahal izan dezan. Azkenik, azpimarratu behar da eskura dagoen dirua hobeto banatzeko, saihestu egingo dela jarduera bererako bi federazioen dirulaguntza jasotzea. Horretarako, beharrezkoa izango da federazioen arteko komunikazio handiagoa eta dirulaguntza esleitzeko baldintza espezifikoak berrikustea.

Hilabete honetan hainbat bilera egin dira Bizkaiko Federazioko langileekin, egiten duen lana hobeto ezagutzeko eta funtzionatzeko oinarriak ezarriz. Elkarrizketa horiek gogo onez jaso dituzte langileek.

Berdintasun Plana aurrera doa epe barruan, diagnostikoak dagoeneko deginda dago non egungo egoera definitzen da eta hurrengo plan lantzen ari da, hau 5 ekintza-ildotan banatzen da (Barne Kudeaketa, Kirol Jarduerak, Jazarpena, Prestakuntza eta Komunikazioa) eta bakoitzak, helburu orokorrak, espezifikoak, epeak eta ebaluazioa nola egingo den zehaztuta. Plana osatu ondoren, Aldundira eramango da, onar dezan.

Gorbeia Aterpeari dagokionez, orain arte, Aterpeko ordainsaria behar izanen arabera ematen zen, hemendik aurrera kudeaketa egokia egiteko zailtasuna dela eta, urteko ordainsari osoa entregatuko da Aterpeak berak kudeatzeko. Alokairua Zeanuriko Udalari ordaindu zaio. Aterpeari buruzko erreklamazioak idatziz egiten dira klubetartez, eta erabiltzaile guztientzat eskuragarri egotea proposatzen da.

Hurrengo jardueren artean, hauek nabarmentzen dira:

Maiatzaren 18an Martxa Nordikoaren Munduko Eguna ospatuko da Gorkizen.

Sinatuta,

AITZIBER URIARTE ASTOBIZA
SECRETARIA DE LA FEDERACIÓN